

Sutondoan Etxeratek asteburuko istripua gaitzetsi du
Kultura Ezoizko eta Galipoteko jaiak 18an eta 24an

Galipotean

SORALUZKO
HAMABOSTEKARIA
135. alea, 2006ko
ekainaren 9an



Sendabelarrak,
naturaren
botika

Ile - apaindegia
Styloak



Monika
Styloak ileapaindegia

Bezero txartelarekin ondorengo zerbitzuak oparituko dizkizugu

ZUK AUKERATU

1. Tindatu, garbitu eta orraztu
2. Distirak/metxak, garbitu eta orraztu
3. Garbitu, moztu eta orraztu

PROMOZIO BEREZIA

Tindatu, distirak/metxak, garbitu, moztu, orraztu, makilari basikoa.

Guztia **50 euro.**

EZ ITXARON GEHIAGO, DEITU!

943 77 70 57

OSINTXU (autobus geltokiaren ondoan)



Fresaketa teknologia



SORALUCE
GRUPO DANBAT

SORALUCE S.Coop. • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: www.soraluce.com

Genève, kontsumitu 06-07-15 aurretik



EGUZKIÑE ALDAZABAL

negua/hotzetik ihesi _Italia.

Alpeak gurutzatu dituzte. Dena eta denak manta txuriak estalita lo. Isiltasuna. Trenak kasualitatez gurutzatutako lurraldea. Xek Yren falta du, faltan harekin izan ez duena. Hasierako hilabeteetan pauso txiki jarraiez Yk X domestikatzearen ondorio... orain Yk onartzen ez duen kontua... lasterketa batean irabazle suertatu eta irabazleak jaso nahi ez duen domina bezala. Helmugara nahigabe iritsi izan balitz bezala. "Ni? Barkatu, ez zen nire intentzioa..." Xek eskuak eta bihotza hotz. Gainean eraman daitekeen dena darama, baina hotza hezurretaraino sartu zaio gaizto. Egunak Milano grisean, Colonen Genovan, San Gimignano bertikalean, Cesarren Erroman... gauak Yren ipuinaren zai. Inora ez doan esperantzadun esperoa.

udaberria/ Berde, berde maite zaitut. Suitza_ Genève.

Y Jrekin hasi zen, baina Jak Lrengatik utzi zuen gero. J Lrekin dabil baina Mrekin eta Ñrekin egon eta gero. Y Irekin ere egon da, aurretik Lrekin egona. Pk, Uk eta Rk Genève

vera iritsi eta gutxira A,B eta Zrekin utzi zuten, K,O eta Erekin hasteko. X, Y y bezala ikusita, C maitatzen hasten da, laino guztien azpitik, letra guztien gainetik. Dena bero, koloretsu, dantzan. Baina Ck iraungitze data baino lehen dena zakarrontzira botatzen du, txarra ala ona dagoen ikusi aurretik. Zaila zaio aurrez ezarritako egun horri kontra egitea, kadukatu ez den zerbaitetan sinistea. Xek eskuak bero, bihotza hotz berriz ere. Ezin al daiteke ba iraungitze data pasata ere, jaten jarraitu, dastatzen, goxatzen...lanaz, ikasketez, lagunez, familiaz, Genèvez... egunaren zenbakiaz ahaztuta, beldurrari burla eginez, neurotransmisoreei borroka irabaziz... Ck ez du inoiz jakingo X erre-serbako ardoa zela...

"bambina, jolastuko gara beti haizearekin hegan egitera, printzesak izatera, jolaste-agatik jolastera? Jarraituko duzu haurrek farre eta jolasten duten bezala bete-betean disfrutatzen? Eta besteoi erakusten nola egiten den? Erakutsiko didazu ze postura hartu behar den, kuleroak erakusteko helburu bakarra kuleroak erakustea denean?"

INORA EZ DOAN ESPERANTZADUN ESPEROA



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Sorluze
Telefona 943 75 13 04
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkarte/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua:

Egoitz Unamuno
Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan,
Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria eta Egoitz Unamuno

Publizitatea:

Ugaitz Catalan
Logotipoa: Jon Gabilondo
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.920 ale
Inprimategia: Gertu Koop.
Diseinua eta maketazioa: BOROBILE Zerbitzu Grafikoak
I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkarrekin ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORLUZEKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



ERREPORTAIA

Gure arbasoek aintzinan ikasi zuten gaixoak osatzeko balio zuten belarrak bereizten eta erabiltzen. Jakinduria hori belaunaldiz-belaunaldi transmititu izan da mendeetan zehar.

Zorion agurrak



Edurne Lacuesta

Ekainaren 22xan,
85 urte

Zorionak etxeko guztien partez, bihotz bihotzez musu haundiena.



Josu Lete

Ekainaren 23an,
25 urte

Etxeko guztien partez, zorionak "irlandés"!



Elena Sierra

Ekainaren 24an,
3 urte


Zorionak etxekuan eta lagunen partez.



Markel Gisasola

Ekainaren 7xan,
urte 1

Zorionak eta musu asko zure lehenengo urtebetetzian, etxekuen partez.



Gorka Santamaria

Ekainaren 11an,
10 urte

Zorionak eta ondo pasau familixian partez.



Xabier Jauntsarats

Ekainaren 8xan,
8 urte

Zorionak mutil haundi !! Musu erraldoi bat Garazi, Beñat, Peio, Xabier eta Julenen partez.



Iraia Intxaurre

Ekainaren 9xan,
6 urte

Zorionak ama, aita eta Naiaren partez. Mila kilo zorion zure urtebetetzian Eneko, Alana, Alberto eta Anaren partez.

Jaietako kartel lehiaketa

- Gaia: herriko bizitzaren zenbait alderdiri buruzko alegoriak. Librea.
- Nahid adina kolore. 35 zm. zabalera eta 45 zm. luzera.
- Ez da marraztuko sexu-diskriminazioa erakuts dezakeen egoerarik.
- Epea: ekainaren 23a.
- Saria 300 eurokoa izango da, 100 euroko akzesita.
- Karteletan "2006 SORALUZKO JAIK" jarri beharko da. Hauetaz gain arau gehiago ere badira. Informazio gehiago Soraluzeko Udalean (943 75 30 43).

Gutunak

Orain bakea

Momentuan irtetzen da jendea eta nik diot bakea oraina dela Euskal Herria konpontzeko.

Bai, horrela da, mahai kideak luze hitz egingo dute eta gobernu buruak ere bai. Egia da, egia da... Mahaikideak luze hitz egingo dute eta gobernu faltarik

gabe, mugarik gabe, luze hitz egin behar dute.

Bidea da luze eta gogor, egunez egun. Bakea oraina da eta iadanik behar dugu. Eta bestela zer?

Gabriel Galan Solana



Informazio gehiago
900 110 111 doako telefonoan
www.gipuzkoa.net/gazteria
Buletinen harpidetza !!!

Lana

Administrari bat

Azkoitiko Udala.2. mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea eta 2. hizkuntza-eskakizuna.

Oposizio-lehiaketa.

Epea: 2006-06-20.

Telefonoa: 943 85 70 47

Errenta teknikari bat

Bergarako Udala. Enpresa zientzietako diplomatu tituluaren jabe izatea edota ekonomi zientzietako edo zuzenbideko lizentziatuetako lehen hiru ikasturteak gaituta izatea. 4.HE.

Epea: 2006-06-23.

Telefonoa: 943 77 91 00

Lehiaketa

Euskal herriko II. SMS Lehiaketa

UEMA (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea).

Edukia: • Modalitateak: SMS edo orde-nagailua • Gehienez ere 100 karaktere. • Euskarazko mezuak • Gaia: "Esaiozu ezetz".

Epea: 2006-06-30

Iragarkiak

- **Garajea salgai.** Bi autorentako tokiarekin. Ateduna. Tel: 943 76 99 78.

Hildakoak

- IMANOL MAIZTEGI GALDOS
- ENRIKE TXURRUKA MAIORA
- JULIA ARANBERRI LASKURAIN

IRATXO GOXOTEGIA

EGUNKARIA ETXERA ERAMATEN DIZUGU GEHIAGO ORDAINDU GABE

ETXABURUETA, 4 20590 SORALUZE tlf: 943 75 13 20

Mutua General de Seguros

Loli Nieves García

Santa Ana, 13 • SORALUZE
Tel. 943 75 14 57 - 646 522 659
E-maila: mdnievas@mgs.es

Zer irizten dotsazu?

Hego Euskal Herrian maileguak batez beste 144.000 eurokoak dira eta hipoteka hori 20 urtera duenak orain 80 euro gehiago (821 euro) ordaindu beharko ditu hilero. Gero eta zorpetuago bizi garela diote.

Gero eta zorpetuago bizi garala uste dozu? Horren aurrian ze iritzi daukazu?



Mila Garcia
35 urte, erizaina

Egixa da gero eta zor gehixago darella, baina gauza gehixago nahi dogulako baitta. Azkenian danerako eskatzen dira maileguak, lehenago baino gehixago, nahiz eta larrixago ibili.



Aitor Lasa
51 urte, elektrizista

Bai, dana txartzen doia eta gaztiak ezin dabe etxetik alde egin be, holako bizitza karuakin. Gainera, bizi guztia ordaintzen pasatzera kondatzen gaittue, biharrezkuak diran gauzekin be.



Loli Garcia
36 urte, tornilleria

Bai hola da, hala ta be mailegu gehixago eskatzen dira. Euruan etorreriakin gauzak asko karutu dira. Gainera, gizartiak onartu egitten dau, zer egin bestela?



Ana Isabel Uribe
50 urte, etxez etxeko langilia

Bai noski, karuegixa da bizitza eta prestamo barik ezin ezer erosi... Azkenian onartu egitten dogu eta ze erremedioxo, aurrera egin bihar!!



Juan Carlos Alonso
44 urte, peoia

Duda barik, gora eta gora doiaz danan preziuak, sekula ez da ezer merketzen. Azkenian mailegua eskatzia baino ez jaku geratzen, zer erremedioxo!



Iraitz Zubiaga
17 urte, ikaslia

Bai, dudarik barik. Nik mailegua eskatuko neuke, baina biharrezkua danian baka-rrik. Bildur pixkat emoten dosta honek, danak gora besterik eztau egitten eta.



**Karta enkarguz,
jaunartzeak
eta bataioak**

EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

KREA

Barruko Arkitektura eta Dekorazioa

AINHOA LETE IRASUEGI

Tel.: 635731268



FURGONETA BERRIA
Zaharren egoitzarako. Ekainaren 1ean, Jesus Arregi Soraluzeko Kutxa sukursaleko zuzendariak furgoneta berri baten giltzak entregatu zizkion Oskar Gabilondo Soraluzeko alkate eta egoitzako presidenteari.

Osasun Etxea euskalduntzeko eskaria



Koldo Heriz eta Eñaut Unamuno Soraluzeko Euskal Herrian Euskaraz-eko ordezkariak, hizkuntza es-

kubideak bermatzeko eskaerarekin bat egiten duten 330 herritarren sinadurak aurkeztu zituzten joan den ostiralean osasun etxean. Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala oinarri hartuta, osasun zerbitzua euskaraz izateko eta administrazioaren lan hizkuntza bilakatzeko normalizazio plangintza eraginkorra abian jartzea eskatzen dute E.H.Ekoek, neurri hauen bidez euskararen benetako ofizialtasuna ahalbideratzeko.

15 hautagai etxez-etxeko lanposturako

Astlehener goizean egin zen Udaleko etxez-etxeko laguntzaile lanposturako azterketa teorikoa. 15 hautagai aurkeztu ziren azterketara eta 15ek pasa zuten lehenengo froga. Hurrengo frogara, teoriko-praktikoa, hilaren 15ean egingo dute zaharren egoitzan. Udaleko administratibo lan postuari dagokionez, 49 ziren osteguneari izena emana zuten hautagaiak, epea amaitzeko egun baten faltan.

Kirol aukera zabala gazteentzat ekainean eta uztailean

Udaleko kirol sailak, Plaentxi Herri Ikastetxeak eta DBH Institutuak elkarlanean UDA kirol programa jarri dute martxan, ekainean eta uztailean Soraluzeko gazteei kirol desberdinak praktikatzeko aukera emango diena. Besteak beste, hilabeteotan beisbola, saskibaloia, eskubaloia, Kayak, eskalada, frontonisa, pelota, arko tiroa edo zaldiketa bezalako kirolak ezagutu eta praktikatzeko aukera izango dute. Diputazioaren babesa dauka aipatu UDA programak.

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
 Jabe Elkarteak
 Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
 Tfnoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze
 GIPUZKOA

Javier Alonso Zelaieta
 K. Z. 20.000.434
 Nora Bastida Etxeberria
 K. Z. 20.000.736

HORTZ KLINIKA

Erreal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13


JABIER ALBERDI
 HARATEGI
 ARTISAU ERARA
 ESPEZIALIZATUA
 KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
 PRODUKTUETAN.



Erreal kalea 24
 Tfnoa 943 75 19 32



tel: 943 75 20 81



Kontrargiren 2006ko argazkiak

Ekainaren 12tik 14ra bitartean, Kontrargi argazki kolektiboko ki-deen argazkiak ikusi ahal izango dira kiroldegiko erakusketa gelan, 7etatik 8:30etara aste barruan eta 12etatik 13:30etara zapatuetan.

Alfonso Cruz, Isaac Zamakola, Mikel Valero, Fernando Oregi, Julio Mendikute, Gorka Soraluze, Alex Gartzia eta Ekaitz Uzinek osatzen dute gaur egun Kontrargi argazki kolektiboa.

28 pintore margo lehiaketan



Maiatzaren 28an ospatu zen kaleko XIII. margo lehiaketan 28 margolarik hartu zuiten parte, zortzik gaztetxoen mailan eta hogeik helduenean. Gaztetxoen mailan lehenengo eta bigarren sariak Haizea Zelaia eta Asier Martinez Alcocerrentzat izan ziren.

Helduen mailan, berriz, Julio Gomez izan genuen garaile (argazkiko ko-adroarekin) eta Juan Jose Altuna bigarren. Sari berezia Piedad Sanamariak jaso zuen eta herriko onenaren saria Puri Lemosek.

Kurtso bukaerako tailerrak EPAn

Ekainaren 5etik 16ra bitartean azken lau hilabetei dagozkien tailerrak egingo dituzte EPAko ikasleek. Izena eman nahi dutenek EPAk Baltegieta daukan lokaletik pasa beharko dute edo 943 753017 telefono zenbakira deitu bestela.

AHTren kontrako manifarako autobusa

Abiadura haundiko Trenaren aurkako asanbladak manifestazioa deitu du zapatu honetarako Donostian. Ibilbidea arratsaldeko 17:30etan hasiko da Anoetan. Plazentziatik autobus batek arratsaldeko 15:45 etan irtengo du Gila Zubitik.

Familiarendako txangoa zapatuan

Atxolin guraso elkarteak familiei zuzendutako irteera antolatu du Urola aldera, zapatu honetarako. Irteera goizeko 9:30etan izango da estazioko geltokitik, autobusez. Egunean zehar, Azpeitiko trenaren museoa, Dinosaurioen frontoia eta Lasturreko errota bisitatu dituzte, besteak beste.



ESKERTZA

2006ko maiatzaren 28an hil zen,
88 urte zituela

ENRIKE TXURRUKA MAIORA
Goian bego

*Etxeko denok bihotzez eskertu nahi dizuegu
egun hauetan gure doluan laguntza eta
elkartasuna eman diguzuen guztiori.*



IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze



Garargardoa
eta Kafea


**aukera
ugaria**

943 75 00 30



Berbena belarra.

Naturak osasunari eskeintzen diona



Mari Karmen eta Mariak ikastaroa eskeiniko dute ekainak 17an.

Gure arbasoek aintzinan ikasi zuten gaixoak sendatzeko balio zuten belarrak bereizten eta erabiltzen. Jakinduria hori belaunaldiz belaunaldi transmititu izan da mendeetan zehar, guregana iritsi arte. Gaur egun gehienek farmazian erosten dituzte sendagaiak, baina badira, baserri giroan batez ere, sendabelarren kultura jaso duten gizon-ermakumeak. Maria Urizar, Iturrixaga baserriko alaba eta Mari Carmen Ortueta, Antzuolako Egurrebai baserriko alaba dira horietako bi. Zenbait belarren eta ukendutren berezitasunak azaldu dizkigute. Ekainaren 17an sendabelarren ikastaroa eskeiniko dute San Andresen.

BIBLIOGRAFIA: "Zilarrezko aitzurra", Oiartzungo Intxixu kultur elkarte, 2000

MARIAREN UKENDUA

ZERTARAKO DA ONA?

Zauri, kolpe, azal kendu, errearendako...erabilpen asko ditu ukendu honek Mariaren esanetan. "Misteriosua da pomada hau, ona. Mugarriko Paulak hola egitten ei zeban".

Pomadak egin eta behar dutenei ematen die. Hala ere, esan omen diote kalean: "zuk gauza honek esplotau egin bihar dittuzu, Maria, esplotau!"

NOLA EGITEN DA?

"Olixua berotu, litro bat edo bi; ogi pusketa bat bota eta doratzen darian bota manzanillia eta erramua. Honek biguntzen darian, etara munia (ganauan tuetana) eta bota hau be. Azkenian, bota argizari purua.

BERBENA ENPLASTOA

ZERTARAKO DA ONA?

Gibela, erreuma, nerbioak, eztarria, zelulitisa...

NOLA EGITEN DA?

Txiki-txiki egin behar da berbena. Ondoren, oliotan jarri eta goxo-goxo zimeldu. Pare bat zuringo harrotu eta izara zati bat gertu euki bertara botatzeko. Sinusitia dutenek bekokian jarren dute enplastoia.

MARI KARMENEN UKENDUA:TIRIKILLOIA (bere tiak irakatsia)

ZERTARAKO DA ONA?

Infekziñuak kanpora etartzeko erabiltzen da. "Tirikilloia": horrela deitzen omen zion bere tiak ukenduari. "Al baño maria" egitea gomendatzen du Mari Carmenek, "Olixotan egitia paligrosua da, larregi erretzen bozu toxikua izan leike eta".

NOLA EGITEN DA?

Berbena bedarra, Pasma bedarra, erramua, oiluan gantza eta erretxina (zuhaitzetako resinia) "Baño Marian" egin.

ERREARENDAKO ETA URRATUENDAKO UKENDUA

NOLA EGITEN DA?

Berbenia eskutakada bat, pasmo belarra beste bat, intsusa-makilian azal berdia eta barruko mintza eta argizarixa.



Santio belarra edo iperikua

(Hypericum perforatum)

Kolpiendako batez be. Hilgoran batu bihar da, belarran lorak (horixak) olixotan sartu eta tarro baten euki eguzkittan 40 egunian. Noizipenian mobidu. Olixua gorri-gorri lagatzen dau. Mina kalmatzen dau. (Mari Karmen)



Pasma belarra

(anagallis arvensis)

Bronkioak garbitzeko, zauriak ondo sendatu eta orbaintzeko, eztriko infekzioak, gangrena, ekzemak eta larru azalekoak, odola garbitzeko, gibela eta giltzurrunetarako... Ur irakinda hartzen da. Kontuz ibili behar da lorehun haziak pozointsuak dira eta. Minik ez dugunean astean behin hartzea ona da. Minez gaudenean, berriz, 3 egunian hartu bihar da.



Aizeri buztana

(Equisetum arvense)

Piñu antzerako landarea. Erresidentzia aldean aurki daiteke. Txixa eta giltzurrunetako harriak garbitzeko, artrosisa, anemia, ile ahulezia, tentsio arazoak...



Intsusa/sauco

(Sambucus nigra)

Bronkio, asma, eztula eta griperako. Erreuma, diabetesa, pixa eta giltzurrun infekzioak, konjuntibitisa, erredu-rak, herpesa, sinusitisa, faringitisa... Lore, hosto, kanpo eta barruko azalak eta mintzak erabiltzen dira infusioan hartzeko edo ukendu eta jarabeak egiteko.



Horma belarra/gibel belarra

(Parietaria officinalis)

Diuretikoa. Txixa eta gernu-bide arazoak, prostata, ekzemak. Hepatitisa, bronkitisa, zauriak, larru azaleko zimurrak kentzeko. Ur irakinda, 40-80 gramo litroko. Horma belarrak kalean bertan urtetzen du, edozein paretia zaharretan.



Keixa kertena

Txixa garbitzeko. Keixak jan ahala apartau buztana eta pilia egindakoan sikatu eta infusioan hartu.

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!




| Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



MENDIZABAL

OKINDEGIA

Halebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE



Ezoziko jaiak 18an, idi eta guzti

Aurten ere antolatu dute jai eguna Ezoziko auzoan. Joan zen urtean moduan sorluzetar mordoxka erakartzeko itzaropenarekin prestatu dute egitaraua:

9:30etan: S.K.B.ekin mendi irteera Gila zubitik.

12:00etan: Mendoz anai-arreba trikitilariak.

Ondoren S.K.B.-ko mendiko finalistei ongi etorria egiten diegun bitartean salda eta txorizoa banatuko da.

13:00etan: MEZA.

Jarraian HERRI KIROLAK

- Harrijasotzaileak

- Idi proba

14:30etan: Armendin bazkaria.

17:30etan: ARNOren zezentxo eta zalditxoak.

Ondoren erromeria Mendoz anai-arrebekin.

Umeei opari desberdinak banatuko zaizkie.

18:00etan: V. BOLO TXAPELKETA.

Galipoteko jaiak San Juan egunean



San Juan egunean, ekainaren 24an ospatuko da aurten Galipoteko jaiaren 3. edizioa. Antolatzaileek

aurreko urteetako egitarauari eutsi diote, berrikuntza batekin: amodiozko gutunen sari banaketa eta irakurketa. Hau da hilaren 24rako programatuta dagoena:

12:00etan: Salda eta txorizoa Plaza Barrian.


15:00etan: Bazkari herrikoia Galipotekoan.

18:30etan: Amodiozko gutunen sari banaketa.

19:00etan: Musika kontzertua.

RKZULO jaialdia uztailaren 21ean

Santiago eta Santa Ana jaietako ostiralean ospatuko da aurten IV. Rkzulo jaialdia. Kontzertua gaueko 11etan hasiko da; aurretik afari herrikoia egingo da frontoian.



Mingaina Explosion Mendatan zapatuan

Mingaina Explosion herriko rock musika taldeak kontzertua eskeinituko zapatu honetan, hilak 10, arratsaldeko 18:30etan Mendata tabernan.

Argazkigintza digitala KZgunean

Ekainaren 13tik 27ra bitartean argazkigintza digitalean trebatu eta aurrerapausoak emateko aukera berri bat izango da Sorluzeko KZgunean. Ikastaroa, argazkigintza digitalean zein irudien hobekuntzan interesaturik daudenei zuzendua dago bereziki. Eskolak astartero emango dira, arratsaldeetan. Informazio zabalagoa 943 75 30 45 / 943 79 94 44 telefonotan eskura daiteke.

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

Telefona 75 24 09

ARRANO
tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

 **etxera**
EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

Regina Maiztegi soraluzetar preso bisitatza zozela istripu gogorra izan zuten Madrilen hiru soraluzetarrek joan zen larunbatean. Euskal Herriko eta Soraluzeko Etxerat-ek gogor salatu dute istripua. Herrian bi bilkura egin ziren asteburuan. Zaurituek ospitalean jarraitzen dute oraindik.



Txaro Maiztegi eta Ostolaza Etxerateg Donostian eskainitako prentsaurrean.

Nahikua da!

Sakabanaketa politikarekin “behingoz” amaitzeko eskatu du Etxerat-ek eta dei egin die herritarrei hileko azken ostiraletako bilkuretan parte hartzera.



“Frantziako eta Espainiako gobernuen agindu xume bat nahikoa litzateke. Ez dute eman eta gaur hiru senide ospitalean daude”

Estanis Etxaburu,
Etxerat-eko bozeramailea

“Ondio eskerrak emon biharko dittugu inor hil ez dalako”

Txaro Maiztegi,
Regina Maiztegiren ahizpa

Zaurituen egoera

Roberto, Mikel eta Jesus Mari Argarate ez dira gertatutakoaz oroitzen. Lehen a ambulanzian eraman zuten ospitalera, beste biak helikopteroz. Bi ebakuntza egin dizkiote Mikeli eta zaintzapean gutxienez 15 egun egin beharko ditu 12 de Octubre ospitalean. Politraumatismoak eta hainbat hezur hautsita dituzte beste bi lagunek. Hiruiek ingresatuta jarraitzen dute.

Aurtengo 11. istripua

Etxerateg jakinarazi duenez 2006an gertatu den 11. istripua izan da azken hau. Oraingoan hildakorik ez dela izan baina edozein asteburutan edozer gertatu daitekeela ohartarazi dute. “40 minutuko bisita bat egitteko astero milaka kilometro egitten jarraitzen dogu ehundaka senidek, horrek daukan arriskuakin”. Horrekin batera, azken hilabeteetan presoen egoerak txarrera egin duela diote, “oin 10 laguneko zerrenda bat dauka preso bakoitzak. Bake prozesuarekin aurrera egin nahi bada, sakabanaketarekin amaitu biharko da. Nahikua da ya!”.

Mina Udal Gobernuaren jarreragatik

Etxerat-ek bere haserrea eta mina adierazi nahi izan dute “Udaleko Gobernu Batzordearen jarrerarengatik”. “Lotsagarria eta mingarria da herriko alkatian diar bat be jaso ez izana. Gainera herrixan sakabanaketak eragindako bi hildako izan dittugunian”. Era berean EAJ eta EAren jarrera salatu dute, “presuen eskubidien alde darella diñue baina gero ez dabe ezer egitten, interes minimorik bez”.

Herrian atxikimenduak batzeko ekimena

Etxerateg gizartearengan du jarrita itxaropena. Euskal Herri osoan egiten ari diren moduan Soraluzeko Etxerat herriko gizarte eragileekin biltzen ari da. “Elkartieri presuen eskubidien aldeko Ibaetako adierazpenarekin bat egin eta konpromisuak hartzeko eskatzen dotsegu. Jentiaeren laguntzarekin presioa egittia da zeozer lortzeko modu bakarra”. Horregatik dei egiten diete soraluzetar guztiei hileko azken ostiraletan egiten diren bilkura zabaletan parte hartzera.



EUSKAL DERBYA. Umore onean jokatu zen ekainaren 3an Soraluzeko IV. Euskal Derbya. Partidua zuri-gorrientzat izan zen, Athletic-ek 9 - Errealak 6. Datorren urtera arte!!

EMAITZAK

ESKU PILOTA

JAUREGI

Elgetan

- Jauregi 22
- Irurita 12

Tolosan

- Olaetxea - Jauregi 15
- Mikel Gonzalez - Jon Bengoetxea 22

ATXOTEGI

Deba Arrokoan

- Atxotegi - Arrizabalaga 22
- Alday - Osa 8
- Atxotegi - Arrizabalaga 22
- Muruamendiaraz - Azkarate 15

LASKURAIN lesionatuta egon da

Asier eta Iñakiren omenezko txapelketan:

- Josu Unanue - Jurgi 22
- Sinatra - Jon Heriz 6
- Beñat Catalan - Jon Gallastegi 22
- Marco - Ander "Izarre" 20
- Mikel Argarate - Argoitz 22
- Marco - Ander "Izarre" 20
- Mikel Argarate - Argoitz 22
- Jon Varela - Kiru II 7
- Beñat Catalan - Jon Gallastegi 22
- Ekain Uzin - Elosu 10
- Suar - Portu (aita) 22
- Gorka Oregi - Egoitz 9

FUTBITO

- Torpedos 4 - Kirikixos 3
- Tornilleria Deba 2 - Fronton Team 12
- Banderatrapo 5 - Artifices 10
- Guri-guri 12 - Gaztetxe 0

Plazentziatarrak Zegama-Aizkorri maratoian



388 lasterkarrik hartu zuten parte maiazaren 28an jokatu zen V. Zega-

ma-Aizkorri Mendi maratoian. Hel-
mugara lehenengo iristen Ricardo
Mejia Mexikarra izan zen, 4.03:41 mi-
nutuko denboran. Plazentziatarren
artean lehenengoa Zigor Alberdi izan
zen, merituzko 47. postuan, 4:57:36
denborarekin. Xabier Lijo 124. pos-
tuan iritsi zen 5.33: 18 ko denboran
eta Koldo Azkorbebeitia 222. postuan
6.18:58 ko denboran. Gonzalo Ariz-
nabarretak Aizkorri igotzean erreti-
ratu egin behar izan zuen.



Diseinua eta Sormena

Polígono Amillage, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

GURE ZERBITZUAK

- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

ELIZPE
Hortz Klinika



- ✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
- ✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- ✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)

Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67

**TXOKO
KAFETEGIA**



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22 behea, telf.: 943751789



**HNOS. BENITO
ANAIAK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Junzai Txetxera

Soraluzeko musika taldia

Aurtengo Rk Zulo jaialdian (uztailak 21) debuta egingo duen taldeetako bat da Junzai Txetxera. Gotzon Elizburu (ahotsa), Imanol Sancha (gitarra), Mikel Hernandez (baxua) eta Iker Garcia (bateria) gazteek osatzen dute punk-rock moldeko konjuntio berria.

Noiz sortu zenduen taldea?

G.E.: Ganoraz ensaiatzen urrian hasi giñan. Aurretik, instrumentorik ez zekagunian, mobila eta ordenadoria erabiltzen genduzen melodiak grabatzeko. Ordurako Mikel hasitta zegan abestixak idazten, etxeko gitarra española zahar batekin; Iker bateria ikasten apuntau zan eta Sancha beranduago sartu zan. 5 urtian ibili da gitarra eskolak hartzen.

Ze musika estilo jotzen dozue?

I.S.: Ez dakagu estilo definitu bat. Kantu zaharrenak punki-punkixak dira, egituraz nahiko sinpleak. Kanturik berrixenak, berriz, landuaguak, punk-rock erakuak.

Zeintzuk dira zuen talderik gogokuenak?

G.E.: Ni aspaldi honetan hamengo musikia nabil entzuten: Etsaiak, Negu Gorriak, Mikel Laboa...

I.S.: Nik punk melodikua. Boikot eta antzerako taldiak.

M.H.: Punk Gaztetxerua eta pop zaharra (Duncan Dhu etabar).


I.G.: Musika anglosajoa gehixen bat: Metallica, System of a down, Ramones...

G.E.: Ramones danon gustokua da. Esan leike, laurori gustatzen jakun taldea dala Ramones.

Zeinek egiten ditu kantak?

I.G.: Oinarrizko letrak Gotzonek eta Mikelek egiten dittue eta doiñua Imanolek eta Mikelek. Lokalian batzen garanian danon artian emoten dotsegu formia.

Ze gai jorratzen dituzue zuen abestietan?



"Joten hasi aurretik famatuak egin gara... gure inguruan"

: Protesta kantak dira gehixenak. Gizarte honetan gaizki ikusten doguzen gauzen salaketia egiten dogu; maitasun kantu bat be badakagu: si te soy sincero.

Noiz egingo dozue debuta?

I.S.: Ekainak 17xan, musika eskolako kontzertuan bi kantu joko dittugu. Debuta Rk Zulo jaialdixan egingo dogu. Ia jentiari gustatzen jakun eta gu ikustera datorren. Egixa esan, jotzen hasi aurretik famoso egin gara...gure inguruan.

KANTUTEGIA

- Otsoaren beldur
- Pobreon iraultza
- Tranki Bush
- Okupazioa
- Rebajas
- Si te soy sincero
- Freedom
- Instrumentala
- Baserrian
- Bares de bocatas
- Euskal Herria zentsuratua
- Destroy



SAN ANDRES
Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta
Berogailuak
Sukaldeak eta bainuak*


Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46



JATETXEA
TXURRUKA

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

Argazki zaharra



Iturria: Mauri Garmendia.

Parrokiako koroa 1936an Arantzazun

1936 ko ekainak 16an Arantzazuko santutegian izan ziran parrokiako koruko 87 abeslari hauek. Egun hartan Casimiri meza kantatu omen zuten, 5 ahotsetara.

1go hilaran, goixan zutik: Ercilla, (ezezaguna), "Kotxero", Iribe, Jauregi, Lorenzo Suarez, (ezezaguna), Arsenio Maiztegi, Felipe Lete, Nicolas Eguren, Eusebio Basauri.

2go hilaran: Gardoki, Juanito Urzelai, Paco "Aguacil", Benito Atxuriondo, (ezezaguna), Bingen Urzelai, (ezezaguna), Larrañaga "Raku", Jesus Lete, Luis Arsenio, Jesus Malmero, Paco Elorza, Miguel Amutxastegi.

3. hilaran: Iribe, Marcos Legaristi, Arluziaga "Trapu", Iñaki Ezenarro, Anastasio Basauri, Pepe Artolazabal, Angel Galarraga, (ezezaguna), Jesus Jauregi, Ignacio Zabaleta, Mauricio Zabaleta, Berbis Urzelai, (ezezaguna), (ezezaguna).

4. hilaran: Abelin Ezenarro, Isaac Alday, Javier Garmendia, Santos Basauri, Antonino "Paco" Ucin, Nicanor Iñurrieta, Antonio??, Americano Sebero, Claudio Onandia, Rufino Zabaleta, Simon Artolazabal, Domingo Trebiño, Joaquin Egiuren, (ezezaguna), Herman Oregi, Roque Trebiño, Arturo Oregi, Telesforo Amutxastegi, Iñaki Lete, Eugenio Galarraga.

5. hilaran, jarritta: Vitoriano Arizaga, Martin Amutxastegi, Nestor Maiztegi, Candido Aranburu, Jose Luis Suarez, Abel Trebiño, (ezezaguna), Don Telesforo (organista), Don Roque (parrokoa), Jesus Ercilla, Jesus mari Uriarte, Gotzon Baskaran, Felipe Zabaleta, Miguel Galarraga.

6. hilaran, jarritta: Badiola, Julen Iñurrieta, Mauri Garmendia, Mikel Berrondo, Anton Oregi, (ezezaguna), Jesus Mari Galarraga, Jose Maria Galarraga, Juan Mari Larrañaga, Carlos Maiztegi, Juan Manuel Lasa, Sabino Iriondo, Oscar Sesma.

Lehiaketa

Julian Arana...

↓
Aurreko aleko erantzuna

Julian Arana Ituarteri "El tigre Placentino" esaten zotsen puntista moduan frontoian egitten zittuan salto ikusgarriak zirala eta. Mejiko, Estatu Batuak eta Ameriketako frontoirik ezagunenetan jokatu zeban zesta puntan. Bestiak beste, Modesto Arana, Juan Galarraga, Ciriaco Echaniz eta Jose Antonio Elizburu... pelotari onak izan ziran zesta puntan.

HERRIAREN HISTORIA

GALDERA

Zer bihar zan "txirikilletan" jolasteko?

- Makilia eta makilatxua
- Kanikak
- Bildots hazurrak

Aukeratu erantzun zuzena.

Deitu **943 75 13 04** ra edo e-mail bat bidal ezazu:

pilpilean@euskalnet.net



SARIA →

Fisioterapia saio bat Ormazabal Fisioterapia Zentruan

AURREKO ALEKO IRABAZLEA
Sabina Eizagirre



SARIA
Aseguru bat dohain

berria gure etxean euskara

Egin zaitez harpidedun

1. Kioskoko prezioa baino %10 merkeago
2. Banaketa **DOAN** goizeko 08:00ak baino lehen: etxean, lantokian, kioskoan...
3. Harpidedunentzat zozketak, **opariak** eta deskontuak.
4. Promozioetan **abantailak**



Orain eskaintza berezia

Ekaina amaitu baino lehen harpidetu^{*} gero, **2 opari aukeran**

MP3 Irakurgailu digitala



Kamera digitala



Deitu ORAIN!! **943 30 43 45**

Aukera ezazu, **BIZI euskaraz** **berria**

* Urte osoan eguneroko harpidetza izan behar du

El acuerdo del siglo XXI
 XXI. mendeko
 akordioa
 L'accord du XXI siècle

bai
 euskarari

Zergatik utzi
 behar ote dicit,
 zergatik utzi
 kaniztee?

Soraluzeko XXXVI. Euskal Jaixa
ESKERRIK ASKO!

Soraluzeko
 Euskal Jai
 Batzordea

Ezoziko Jaixak 06
 Ekainaren 18xan, domekan

Etorri
 jai egun
 edar bat
 pasatzera!!!

antolatzaileak

Ezoziko auzotarrak
 Mendi Taldea